

## Zurekin

### ÚLTIMA HORA

Un accidente en el puente de Rontegi complica la circulación dirección Getxo

# Sagezti proiektua aurkeztu dute, sagardoa eta ezia uztartzen dituen euskal edari berria

Azterketa baten emaitza izan da ezia balioesten duten kalitate sentsozial eta izugarriko edari alkoholodun gama berritzailea



Leartikerren instalazioetan eta upeltegietan egindako froga pilotuen ondoren, sagardo naturala erreferentziatzat dituzten edariak lortzeko prozesuei buruzko ezagutzan aurrerapausoa eman da. / LEARTIKER

## UNAI SARRIUGARTE

Asteazkena, 30 azaroa 2022, 18:11



Sagezti proiektua aurkeztu dute, sagardoa eta ezia uztartzen dituen euskal edari berria. Sektore guztien esku hartzea aintzat hartuz, baita konsumitzaileek produktu eta aurkezpen berrien kontsumoaren aurrean duten interesa kontuan izanik, sagardo naturaletik eratorritako edariak egiteko Sagezti ekimena abiarazi dute, elaborazio-prozesuan ezia txertatzen diotelarik.

Hainbat eragile ari dira egitasmo honetan parte-hartzen, hala nola, Iparragirre, Iturrieta eta Ola Sagardotegiak, Juan Zuriarrain aholkularitza enologikoa eta Leartiker zentro teknologikoa, Eusko Jaurlaritzaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren babesarekin.

Leartikerren instalazioetan eta upeltegietan egindako froga pilotuen ondoren, sagardo naturala erreferentziatzat dituzten edariak lortzeko prozesuei buruzko ezagutza aurrerapausoa eman da, sagar-muhtioa eta ezia hartziduran nahasten dituztelarik. Azterketa honen emaitza ezia balioesten duten kalitate sentsozial eta izugarriko edari alkoholodun gama berritzailea izan da.

Produktuen lehen uztak Xixonen erakutsi ziren eta egundoko interesa piztu zuen Sageztiak. Xixoneko esperientzia ikaragarria izan zen, bertan aurkeztutako lau Sagezti produktuetako bik garaikurra irabazi zutelarik Zaporedun Sagardoen kategorian.

Egunotan Unai Agirre Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako koordinatzailearen eskutik, Astigarragan (Gipuzkoa) kokatuta dagoen sagardoaren egoitzan sagarraren sektoreko profesional eta elkarteentzat Sagezti proiektuaren aurkezpena gauzatu dute. Bertan edari berri honen jatorria, elaborazio prozesuak eta emaitzak ezagutzera emateaz gainera, Sagezti edari berria dastatzeko saioak landu dituzte.

Sagezti proiektuaren hurrengo urratsa azkenengo kanpainan zehaztutako produktu-barietateen produkzio komertziala gauzatzea da, eta Iparragirre, Iturrieta eta Ola sagardotegiak buru belarri dabilta lanean datorren udaberrian produktu berriak merkaturatzeko asmoz.

TEMAS Euskera, Sidra

1 Comentarios

PATROCINADA

POLESTAR


Escandinavo, eléctrico y exclusivo: así es el coche que se compra con un clic



Fotos



El brillo que merecen los Globos de Oro



Los tesoros únicos que puedes encontrar en el último mercadillo artesano de Bilbao



📷 Ecologistas resisten al desalojo y derribo de un pueblo alemán para extraer carbón



📷 El día en el que Japón celebra ser mayor de edad y sale a la calle con la ropa tradicional

**OA**  
OBJETIVO  
ACTUALIDAD

CICLO DE ENCUENTROS  
CON GRANDES PROTAGONISTAS  
DEL MOMENTO

SEGUNDO ENCUENTRO  
LUNES, 23 DE  
ENERO  
9:00H



**Jorge Dezcallar  
de Mazarredo**  
Embajador de  
España

## Vídeos



# De Miguel: legezkotasuna eta etika ez daude beti lotuta



© DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.

C/ Gran Vía 45, 3ª planta, 48011 Bilbao



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

vocento

[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)